



FORU AGINDUA

444

ORDEN FORAL

Ondare Historiko, Artistiko eta Arkeologikoaren  
zerbitzua

Servicio de Patrimonio Histórico-Artístico y  
Arqueológico

Esp. zenb.: 08/M1.8

Nº Expte.: 08/M1.8

“Lurmen S.L.” enpresari kultur diputatuaren  
uztailaren 11ko 189/2002 foru-aginduak  
emaniko denbora baterako okupazio-baimena  
eta urteko indusketa-baimena ezeztatzeko  
espedientea.

Expediente de revocación del permiso de  
ocupación temporal y del permiso de  
excavación anual concedido a “Lurmen S.L.”  
por Orden Foral del Diputado de Cultura  
189/2002, de 11 de julio.

*Helena Lopez*

I. Iruña-Veleiako aztarnategia monumentu  
nazional bilakatu zuen estatu espainiarrak  
1915ean eta, Euskal Gobernuaren uztailaren  
17ko 265/1984 dekretuak monumentu historiko  
nazional izendatu zituen Iruñako zubia eta  
Oppiduma, kultur ondare sailkatutzat hartuz.  
Aipatutako aztarnategia, diputazio honen  
jabetzapeko kultur ondare sailkatua delarik  
(Euskal Gobernuak 1985ean eginiko  
transferentzia bidez) eta Euskara, Kultura eta  
Kirol sailari atxikia, jabari publikoaren ondasun  
bezala.

I. El Yacimiento de Iruña Veleia fue declarado  
Monumento Nacional en 1915 por el Estado  
Español y por Decreto 265/1984, de 17 de julio,  
el Gobierno Vasco declara Monumento Histórico  
Artístico Nacional el Puente y el Oppidum de  
Iruña, considerándolos Bien Cultural Calificado.  
Dicho Yacimiento como Bien Cultural  
Calificado es propiedad de esta Diputación (por  
transferencia realizada en 1985 por el Gobierno  
Vasco), adscrito al Departamento de Euskera,  
Cultura y Deportes como Bien de Dominio  
Público.

Tresponde eta Billoda herrien artean kokatutako  
aztarnategi hau, dudarik gabe, euskal kultur  
ondarearen elementurik nabarmenetakoa eta  
giltzarri eta ezinbestekoa gure antzinatasuneko  
aro zabalaren berreraikitze historikoari begira.  
Bertako ekarpena funtsezkoa da historiaurrearen  
azken faseak, Kristo aurreko X eta I mendeak  
bitartekoak gutxi gora behera, ezagutu eta  
ulertzeko eta berebiziko lekukotza dugu aro  
erromatarrari dagokiolarik, Kristo osteko I eta V  
mendeen artekoa; ezinbestekoa erromatarren  
etapa Arabako Lurralde Historikoan aztertu ahal  
izateko, bai eta une hartako arabar eta euskal  
gizartearen, bere usadioak, ohiturak, gizarte-

El Yacimiento sito entre las localidades de  
Trespuestas y Villodas, es sin duda uno de los  
elementos señeros del Patrimonio Cultural Vasco  
y una pieza clave para la reconstrucción histórica  
de amplios períodos de nuestra antigüedad. Sus  
aportes son necesarios para entender y conocer  
las fases finales de la prehistoria,  
aproximadamente entre los siglos X al I antes de  
Cristo y, sobre todo, como testimonio vivo de  
toda la época romana, siglos I al V después de  
Cristo, imprescindible para el estudio de la etapa  
romana en nuestro Territorio Histórico de Álava,  
de la sociedad alavesa y vasca de ese momento,  
sus usos, costumbres, estructura social, técnicas,





egiturak, teknikak eta beste jakiteko ere. Haren ondorengo eraikuntzarik ez da altxatu aztarnategian datzan erromatar hirian eta hauxe da bertako potentzial historiko, sozial, arkeologikoaren funtsezko ezaugarria, bereziki zaindu eta babestu beharreko aztarnategi bihurtuz, berez dakarren interes sozial eta interes publikoengatik.

II. Kultur diputatuaren uztailaren 11ko 189/2002 foru-aginduren bidez, eman zitzaion "Lurmen S.L." izeneko enpresari, Eliseo Gil Zubillaga jauna ordezkari zeukalarik, Iruña-Veleiako aztarnategi arkeologikoa aldi baterako okupazio-baimena, "Iruña-Veleia III. Milurtekoa Proiektuaren" barruan edukitako arkeologi indusketak burutu ahal izateko.

Delako baimen hau 10 urtetako epean eman zen, prekarioan, eta, hortaz, edozein unetan ezeztatzeko modukoa, Arabako Foru-Aldundiak hala nahiko balu, ezelako kalte-ordainik ordaindu gabe.

Jardute-proiektua "Gestio eta ekintza-garapenerako dokumentuarekin" bat etorrira ere eta okupazio-baimena aipatutako foru-agindua hartu eta 10 urtetakoa izateaz gainera, urtebeteko indusketa-baimena ere eman izan zen, batzorde tekniko batek erakunde-batzordeari aurkezteko urtero laboraturiko txostena aurretik delarik emana, esku-hartzerako proiektua eta egindako arkeologi ekintzetan lorturiko emaitzen analisi eta ondorioak txostenaren barne adieraziz.

Proiektu honen burupenean, 2005 eta 2006 urteetako kanpaina arkeologikoetan zehar, zenbait aurkikuntza agertu ziren, berealdikotasunez kotzat jo eta "Iruña-Veleiako aurkikuntza epigrafikoak" edo "Iruña-Veleiako grafitoak" deitu izan direnak. Iruña-Veleiako talde arkeologikoak, Eliseo Gil Zubillaga zuzendari jauna buru izanik, publikoki aurkeztu zituen Iruñako aurkikuntza hauen 2006/06/08an, berebiziko garrantzia historikoa lukeen multzo epigrafikoa zela adieraziz eta idorotako materialak, Erromatar Inperioaren zientzia historikori dagokionean, inportantzia handiko datu berri ugari eskaintzen zuela aldarrikatuz. Egun batzuk geroago, aparteko beste aurkikuntza berri bat agertu zela plazaratu zen berriro. Euskaraz idatzitako grafito ugarien

etc. Es una ciudad romana cuyo yacimiento no ha sido ocupado por construcciones posteriores, uno de los factores claves de su potencial histórico, social, arqueológico, que lo convierten en un yacimiento a cuidar y proteger por su interés social y su interés público.

II. Por Orden Foral del Departamento de Cultura 189/2002, de 11 de julio, se concedió a "Lurmen S.L.", representada por Don Eliseo Gil Zubillaga, un permiso de ocupación temporal sobre el Yacimiento Arqueológico de Iruña Veleia para el desarrollo de las investigaciones arqueológicas contenidas en su "Proyecto Iruña Veleia III.er Milenio".

Dicho permiso se concedió por un plazo de 10 años, en precario y, por tanto, revocable en cualquier momento a voluntad de la Diputación Foral de Álava, sin pago de indemnización alguna.

Con independencia de que el proyecto de actuación, de acuerdo con el "Documento de Gestión y Desarrollo Operativo", y el permiso de ocupación fuera para 10 años a contar desde la adopción de la citada Orden Foral, se establecía la concesión de un permiso de excavación anual, que sería otorgado previa emisión del informe que anualmente elabore para la Comisión Institucional una Comisión Técnica en el que se expondrá tanto el proyecto de intervención como las conclusiones y análisis de resultados de las actuaciones arqueológicas realizadas.

En ejecución de este proyecto, durante las campañas arqueológicas de 2005 y 2006, aparecieron diversos hallazgos considerados como excepcionales conocidos con la denominación "hallazgos epigráficos de Iruña-Veleia" o los "grafitos de Iruña-Veleia". El equipo arqueológico de Iruña-Veleia, representado por su Director Don Eliseo Gil Zubillaga, presentó públicamente el 8/6/2006 dichos hallazgos de Iruña como un conjunto epigráfico de extraordinaria importancia histórica, afirmando que el material hallado proporcionaba abundancia de datos nuevos de una gran importancia para la ciencia histórica a nivel del Imperio Romano. Unos días después, se da nuevamente a conocer la aparición de otro extraordinario hallazgo. Se trataba del





aurkikuntzaren berri eman zen, multzoaren berebizikotasuna dela eta, gizarte eta zientzi astinketa handia eraginik, bai bertan zein maila nazionalen eta nazioartekoan.

Grafitoei buruz prentsan agertutako informazio kontraesankorrek; ikerkuntza-proiektuaren gabezia; zientzi ekipo diziplina anitzekorik eza; zientifikoki kontrastatu gabeko adierazpenak eta, bereziki, arkeologiaren eremuan erakunde honek berez dauzkan eskumen eta erantzukizun guztian gain hartzeko erabaki tinkoa aintzat hartuz, Euskara, Kultura eta Kirol sailak ebatzi zuen 2007.eko udazketetik aurrera Arabako Foru-Aldundiaren "zientzi batzorde aholkularia" eratzea, Iruña-Veleiako egungo egoeraren balioesteko. Batzorde honen eratzeko, Euskal Herriko Unibertsitatearen (aurrerantzean, UPV/EHU) sostengu eta laguntza izan zen, barruan zenbait ikerkuntza-arlo bereiztuz: arkeologia, arkeometria eta analitikak, epigrafia, hizkuntzalaritza, euskara, egiptologia, ikonografia eta kristau ikonografia eta beste.

**III.** Azaroak 19 duelarik, hogeita hamar bat ikerlarik hartu dute parte, UPV/EHU buru izanik, eta behin betiko txostenak idatzi eta, Euskara, Kultura eta Kirol diputatu andreak xede horrekin dei eginiko zientzi batzorde aholkulariaren bileraren barruan, ondorio sektorialak plazaratu dira, txosten-ondorioak Ondare Historiko, Artistiko eta Arkeologikoaren zerbitzuaren esku daudela.

Aipatutako txosten eta ondorioen arabera, laburbilduz honako hau esan daiteke: 1) Berealdiko irizitako grafitoak, zientzi adostasun osoaz, ezin har daitezke inola ere egiazkotzat. Grafito horiek "gezurrezko", "falsifikazio", "garaiko faltsutze", "material ez egiazko", "material ez balioztatu" gisa kalifikatu dira; 2) Zientzi batzorde aholkulariak bertan behera uzten ditu indusketako zuzendariak, ikerketa eta kontrasterik gabe, mantendu dituen zientzi postulatu asko eta asko.

descubrimiento de numerosos grafitos redactados en euskera, que por su excepcionalidad provocó una gran conmoción científica y social; a nivel local, nacional e internacional.

Las contradictorias informaciones sobre los grafitos aparecidas en la prensa; la inexistencia de un proyecto de investigación; la ausencia de un equipo científico multidisciplinar; las manifestaciones no contrastadas científicamente así como la firme decisión de asumir todas las competencias y responsabilidades que en materia de arqueología ostenta esta Institución Foral, determinación que -a partir del otoño de 2007- el Departamento de Euskera, Cultura y Deportes acordara la creación de una "Comisión Científico-Asesora" de la Diputación Foral de Álava para la *evaluación de la situación actual de Iruña-Veleia*. Dicha Comisión fue creada con apoyo de la Universidad del País Vasco (en adelante, UPV/EHU) incluyendo diversas áreas de investigación: Arqueología, Arqueometría y Analíticas, Epigrafía, Lingüística, Euskera, Egiptología, Iconografía e Iconografía cristiana, etc....

**III.** A fecha de hoy, han intervenido alrededor de 30 investigadores, liderados por la UPV/EHU, y se han emitido los informes definitivos y las conclusiones sectoriales presentadas en el marco de la reunión de la comisión científico-asesora convocada al efecto por la Diputada de Euskera, Cultura y Deportes, informes que obran en el Servicio de Patrimonio Histórico-Artístico y Arqueológico.

De referidos informes y conclusiones se puede decir resumidamente lo siguiente: 1) sobre los grafitos denominados excepcionales por su contenido, por unanimidad científica no pueden ser considerados nunca como auténticos. Dichos grafitos son calificados tajantemente de "falsos", "falsificaciones", "falsificaciones contemporáneas", "material no auténtico", "material no validado"; etc...; 2) las conclusiones de la comisión científico-asesora tumban toda una serie de postulados científicos mantenidos, sin investigar ni contrastar, por el director de la excavación.





Laburbilduz, diputazio honetako ondare historiko, artistiko eta arkeologikoaren zerbitzuak egindako txostenari jarraiki, ondorio horiek esan daiteke gaizki burututako proiektu arkeologikoa agerrarazten dutela, zehaztasun eskasaz eta oso kontrol txikiaz, azken finean arkeologiaren zientziari, arkeologoei eta, ezeri baino gehiago, Iruña-Veleiako aztarnategiari berari begien bistako kaltea eraginez.

IV. Aintzat harturik ezen: a) Iruña-Veleian denbora baterako okupazio-baimenaren eta arkeologi jarduterako baimenaren enpresa titularrak ez duela izan gutxienezko arkeologi eta zientzi zorroztasunik, Iruña-Veleia III Milurtekoa proiektua ondasun kultural sailkatu eta, hortaz, onura publiko nabarmen gisa aldarrikatutako aztarnategian behar bezala aplikatzeko bermea ziurtatzearen; b) bere jarduteak eta/edo ezegiteak kalte larriak ekarri dizkiela aztarnategiaren irudiari, monumentu nazionala izaki, eta jardun arkeologikoari berari zein, oro harturik, zientzi komunitateari nola, espezifikoki, honako foru-erakunde honi; foru-agindu honek Lurmen S.L. enpresari Iruña-Veleiako aztarnategi arkeologikoan emandako aldi baterako okupazio-baimena, kalte-ordainik gabe, eta aztarnategi horretan ezelako jarduera arkeologiko egin ahal izateko baimena ezereztatzeko administrazio-espedituari ekitea du xede, aldeztu aurretik eman beharreko audientzia emanik. Hau guztia urteko indusketa-baimena baliogabetzeko zioa ere bada, diputatuon kontseiluek arkeologi jarduerak Arabako Lurralde Historikoan arautzeko onetsitako apirilaren 23ko 323/1991 foru-dekretuaren 10.c) artikulua dioenaren arabera.

V. Era berean, foru-sail honi dagokio Iruña-Veleian egin beharreko ekintza guztien kontrol zuzena gain hartzea, materialen zaintza, inbentarioen kontrola, arkeologi ondasunen jasotzea, aztarnategiaren segurtasuna eta gainontzeko alderdiak bermatzearen eta, oro har, honako agindu honen eraginkortasuna ziurtatzearen. Xede honetarako, ahalmena ematen zaio euskara, kultura eta kirol zuzendariari orain aipaturikoak osatzeko hartu beharko liratekeen neurri kautelazkoak har ditzan.

En definitiva, según el informe emitido por el Servicio de Patrimonio Histórico-Artístico y Arqueológico de esta Diputación, citadas conclusiones ponen de manifiesto el desarrollo de un proyecto arqueológico mal llevado, poco riguroso y muy poco controlado, con evidente perjuicio en el fondo a la ciencia de la arqueología, a los arqueólogos y, ante todo, al Yacimiento de Iruña-Veleia, declarado de utilidad pública.

IV. Teniendo en cuenta que: a) la empresa titular del permiso de ocupación temporal y del permiso de actuación arqueológica en Iruña-Veleia ha carecido del suficiente rigor arqueológico y científico como para garantizar una correcta aplicación del Proyecto Iruña-Veleia III<sup>er</sup> Milenio, en un Yacimiento declarado como Bien Cultural Calificado y, por tanto, de utilidad pública notoria; b) sus actuaciones y/u omisiones perjudican seriamente tanto la imagen de un Yacimiento como Monumento Nacional, como a la propia actividad arqueológica, a la comunidad científica en general y a esta Administración Foral en particular, la presente Orden Foral tiene por objeto iniciar el expediente administrativo para, con audiencia de Lurmen SL, acordar tanto la revocación, sin indemnización, del permiso de ocupación temporal sobre el Yacimiento Arqueológico de Iruña-Veleia como del permiso o autorización para la realización de toda actividad arqueológica en dicho Yacimiento. Lo antedicho es, también, causa de revocación del permiso de excavación anual según el art. 10 .c) del Decreto Foral del Consejo de Diputados 323/1991, de 23 de abril, sobre reglamentación de actividades arqueológicas en el Territorio Histórico de Álava.

V. A la vista de lo actuado, corresponde a este Departamento Foral asumir el control directo de toda actividad en Iruña-Veleia y, en consecuencia, adoptar cuantas medidas procedan para garantizar la custodia de los materiales, el control de los inventarios, la recepción de bienes arqueológicos, la seguridad del yacimiento, etc. y, en definitiva, para garantizar la eficacia de la presente resolución y proteger los intereses públicos implicados.





bermatzeko xedeaz hartutako neurri guztiak hartzea.

**Seigarrena.** Helburu honen lortzeko, honako agindu hau jakinaraziko denetik, ez da aztarnategira sartzeko baimenik emango orain artean indusketaren ardura izan duen pertsonalari, ez bere zuzendariari edo/eta zuzendariordeari, Euskara, Kultura eta Kirol saileko zuzendariak emandako baimen idatzi eta espresik ez bada.

**Zazpigarrena.** Interesatuari, Iruña-Veleian eginiko indusketa guztietan parte hartu duten pertsona guztien zerrenda eskatzea, sektoreka antolatuturik.


**Zortzigarrena.** Lurmen S.L. enpresako pertsonal guztiaren esku diren Iruña-Veleiarako sarbide guztietako giltza guztiak emateko eskatzea.

**Bederatzigarrena.** Iruña-Veleian burututako ekintzei dagozkien material guztiak presta ditzala eskatzea, sail honek materialon gordailu gisa xedatutako biltokietan gorde ahal izateko inbentarioekin batera.

**Hamaikagarrena.** Ahalmenak ematea Euskara, Kultura eta Kirol zuzendariari, aipatutako kautelazko neurrien eraginkortasuna bermatzeko hartu beharreko erabakiak har ditzan.

Vitoria-Gasteiz,

19 NOV. 2008

  
**Lorena López de Lacalle Arizti**  
Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua  
Diputada de Euskera, Cultura y Deportes

arqueológicos y cuanto afecte a la seguridad del Yacimiento.


**Sexto.** A tal efecto, a partir de la notificación de la presente resolución, no se autoriza la entrada al Yacimiento al personal actualmente dedicado a la excavación ni de su Director y/o subdirectora sin contar con el permiso expreso y escrito del Director del Departamento de Euskera, Cultura y Deportes.

**Séptimo.** Solicitar al interesado el listado por sectores de todas las personas que han intervenido en las sucesivas excavaciones realizadas en Iruña-Veleia.

**Octavo.** Requerirle la entrega de todas las llaves de los accesos a Iruña-Veleia de que disponga el personal perteneciente a Lurmen, SL.

**Noveno.** Solicitar la preparación de todos los materiales correspondientes a las actuaciones realizadas en Iruña-Veleia, con sus correspondientes inventarios para proceder a la entrega de los mismos en los depósitos asignados a tal fin por este Departamento.

**Décimo.** Facultar al Director de Euskera, Cultura y Deportes para la adopción cuantas resoluciones sean precisas para la efectividad de las medidas cautelares citadas.

  
**Agustín Otsoa Eribeko Landa**  
Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Zuzendaria  
Director de Euskera, Cultura y Deportes.